



IGERIKETA

2022ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Igeriketa Federazioekin lankidetzan, 2022ko maiatzaren 28an Gasteizen, Mendizorrotzako Udal Igerilekuan. Hauxe duzue jokoen araudia:

1- PARTAIDETZA

Mutiletan 2008. eta 2009.urtean jaiotakoak hartuko dute parte eta nesketan 2009 eta 2010ean jaiotakoak.

Kirolariek lurralde historiko bakoitzean osatutako taldeetan hartuko dute parte. Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

Selekzio bakoitzak errelebo-talde bakarra aurkeztu dezake.

Lurralde historiko bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ahal izango ditu banakako proba bakoitzean, beti ere lurralde bakoitzeko bi onenen partaidetza ziurtatuta izango delarik, banakako probetan. Hauetaz gain, izena emate garaian denbora hobeak dituzten igerilariak parte hartuko dute froga bakoitzeko 16 igerilari osatu arte (bi serie), 100mtrko lasterketetan 3 izango dira bete beharreko serieak.

2021eko urriaren 1a eta 2022ko maiatzaren 22a bitartean egindako parte-hartze markak baliozkotzat hartuko dira.



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Igerilari bakoitzak erreleboetan eta, gehienez, banakako bi probetan parte hartu ahal izango du, jardunaldi bakoitzean proba bat.

Euskadiko Igeriketa Federazioak serieen behin-behineko zerrenda argitaratuko du maiatzak 23an astelehena, bere web orrian (www.eif-fvn.org). Akatsen bat antzemanaz gero, maiatzak 24 asteartea, 12:00ak baino lehen adierazi beharko zaio aipatutako Federazioari. **Web orrian argitaratutako zerrenda ez da eraldatuko, erreklamaziorik onartu edo onartuko ez den kontuan hartu gabe.**

2- PROBEN EGITARAUA

1. saioa (22/05/28 10:00etan)				2. saioa (22/05/28 16:30etan)			
1.-	1500	Librea	Mutilak	15.	800	Librea	Neskak
2.-	400	Librea	Neskak	16.	400	Librea	Mutilak
3.-	100	Tximeleta	Mutilak	17.	50	Bizkarr.ige. IPC	Neskak
4.-	100	Tximeleta	Neskak	18.	50	Bizkarr.ige. IPC	Mutilak
5.-	200	Bizkarrekoa	Mutilak	19.	100	4 Estiloak	Neskak
6.-	200	Bizkarrekoa	Neskak	20.	100	4 Estiloak	Mutilak
7.-	100	Bularrekoa	Mutilak	21.	200	Tximeleta	Neskak
8.-	100	Bularrekoa	Neskak	22.	200	Tximeleta	Mutilak
9.-	200	Librea	Mutilak	23.	100	Bizkarrekoa	Neskak
10.-	200	Librea	Neskak	24.	100	Bizkarrekoa	Mutilak
11.-	200	4 Estiloak	Mutilak	25.	200	Bularrekoa	Neskak
12.-	200	4 Estiloak	Neskak	26.	200	Bularrekoa	Mutilak
13.-	4 x 100	Librea	Mutilak	27.	100	Librea	Neskak
14.-	4 x 100	Librea	Neskak	28.	100	Librea	Mutilak
				29.	400	4 Estiloak	Neskak
				30.	400	4 Estiloak	Mutilak
				31.	50	Librea ige. IPC	Mutilak
				32.	50	Librea ige. IPC	Neskak
				33.	4 x100	Estiloak	Neskak
				34.	4 x100	Estiloak	Mutilak
				35.	25	Librea ige. IPC	Mixtoa



3- IZEN EMATEA

Lurraldeetako Federazioek bakoitzaren selekzioko partaideen izen-emateak LEVERADE sistemaren bidez egingo dute, beranduenez **2022ko maiatzaren 23an 12:00etarako.**

Federazioek izen-zerrenda indibidualetan sartu beharko dituzte errelebo-probetan bakarrik parte hartuko duten igerilariak.

4- LEHIAKETA FORMULA

Serieak marken arabera osatuko dira.

Erlojuaren aurkako sistema erabiliko da. Kronometrajea elektronikoa izango da, 25m IPC igeriketa libreko proban ezik, honetan eskuz egingo da.

5- BAJAK

Bajak idatziz eta inprimaki ofizialean adieraziko dira lehiaketako idazkaritzan, gutxienez jardunaldia hasi baino **ordu erdi** lehenago.

Ordezkariek edo taldeko entrenatzaileak aurkeztu beharko ditu bajak (lehiaketa honetarako kreditatuta egon beharko dute), eta bertan seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea adierazi beharko dira.

Baja aurkeztu gabe aurreikusitako probara etortzen ez den igerilariak **ezingo du saioko beste probetan parte hartu (errelebozkoetan ere ez) eta ez du ordezkorik izango.**

6.- SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

Proba bakoitzean MUTILEN eta NESKEN banakako sailkapenak egingo dira.

Igeriketako egokituko probetan sailkapena multidesgaitasun taulan lortutako puntuen baitan egingo da.



7.- GARAIKURRAK ETA SARIAK

Domina bana jasoko dute proba eta kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9.- AZKEN OHARRA

Euskadiko Igeriketa Federazioak Lehiaketa Zuzendaria izendatuko du lehiaketa honetarako. Bera izango da agintari gorena bai lehiaketaren antolaketan eta baita lehiaketako Epaile Arbitroaren eskumenari ez dagozkion erreklamazioak konpontzeko ere.

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

1. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
2. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
3. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
4. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
5. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
6. Euskadiko Igeriketa Federazioko arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.